



## **TABAKOA, ARAUTU GABEKO ARRISKU BAT?**

(Tabaco, ¿un riesgo sin regularizar?)

Jaki, bizikleta, automobil, poxpolo eta pizgailu, botika eta kontsumoko beste hainbat gaik arautzeko erregelamendu ugari dituzte. Lege horien bidez, produktuak erabiltzean sor litekeen arriskua gutxitzeko eskatzen die administrazioak ekoizleei eta, are gehiago, arriskutsuak izaten ahal diren produktuak galarazteko baimena ematen zaio administrazioari.

Testuinguru honetan tabakoaren egoera bitxia da. Ekoizlearen aholkuen arabera erabiliz, kontsumitzaile bitik bat heriotzara eramaten du. Baina hori legez egin lezakeen produktu bakarra da. Aurrekoa egia izanik, harrigarria litzateke hainbeste jendek produktu hori kontsumitzen jarraitzea ez balego arrazoi sendorik jendea jokabide horretara bultzatzeko, jakinik, neurri batean bederen, kontsumoak dakarren arriskua.

Arrazoi sendo hori mendetasuna da, berehalako plazerra bilatzea, gerora etor litezkeen arriskuei ezikusia eginez. Funtsezkoa da azpimarratzea, erretzen ohitzeko faktoreak eta jokabide horretan irautekoak ezberdinak direla. Erretzen hasteko arrazoiak oso konplexuak dira: faktore sozialak, merkatuarenak eta norberarenak (genetikoak eta psikologikoak) biltzen dira. Erretzen jarraitzeko arrazoiak dira nikotinaren mendetasuna eta erretzeko jokabideari zaion atxikimendua.

Urtero 170.000 neska-mutil hasten dira erretzen Espainian. Eskrupulurik gabeko industria batek aise biltzen ditu, hil diren erretzaileak (maiz tabakoagatik) edo utzi dutenak ordezkatzeko, haren etekin ekonomikoari eustearren.<sup>1</sup>

Tabako paketeen ageri diren osagaiak nikotina, alkitrana eta karbono monoxidoa dira. Gehiago badira, ordea. Askoz ere gehiago. Altadis multinazional espainiar-frantsesak onartu du 289 gehigarri erabiltzen dituela Europar Batasunean saltzen dituen marketan. 289 substantzia kimiko, horietako asko toxikoak, helburu nagusi batekin: mendetasuna handitzea eta tabakoaren ondorio desatseginak gutxitzea. Erretzailea lehenago harrapatu behar da.

"Zigarro baten %90 tabakoa da. Berez mendetasun sortzailea eta kartzinogenoa da. Baina %10 gehigarriak dira, konposatu kimikoak. Horietaz gutxi dakigu eta inork ez du haien segurtasuna aztertu. Tabako ekoizleak milioika pertsonarekin esperimendu bat egiten ari dira, eskala handian", dio telefonoz Michael Rabinoff Kalifornia-Los

---

<sup>1</sup> Cordoba R. Guía de buena práctica clínica en Abordaje de Tabaquismo. OMC – MSC. Madril, 2006.

Angelesko irakasleak. Azaroan argitaratu zuen "Zigarroen gehigarrien ondorio farmakologikoak eta kimikoak" ikerketa, Amerikako Osasun Publikoaren Elkartearen aldizkarian. AEBetan industriak onartzen dituen 599 gehigarriak aztertutik ondorioa ondoko hau da: "100 gehigarri baino gehiagok eragin farmakologikoa dute".

Gehigarri hauek guztiek, dosi txikienetan ere, badituzte ondorioak, bata besteari gehitzen zaizkionak eta batzuk toxikoak eta kartzinogenoak direnak. Azetaldehidoa mutagenikoa da eta toxikoa enbrioarentzat eta tumoreak sortzen ditu arnasbideetan, 2001eko azterketa baten arabera. Paketean aipatzen den alkitrana ez da substantzia bakarra, zigarroa erre ondoren gelditzen diren milaka konposatuen bilduma baizik: konparazio batera, metal konposatuak (artsenikoa) edo gai guztiz kartzinogenoak (tabakoaren berezko nitrosaminak). Toxikoen gainerakoa kera joaten da.

Andaluziako Juntaren Nekazaritzako Elikagaien Laborategiko aditu batek, tabako ekoizleak auzitara eraman baititu, zigarroen kea eta alkitrana aztertu ditu demandarako eta dio: "Zigarroak ingeniaritza obra bat dira mendetasuna handitzeko. Tabako ekoizleak gu baino askoz aurrerago daude eta gehigarri gehienek, urrinak direla esanagatik, beste helburu batzuk dituzte. Horietako askoz ez dakigu deus ere".

Tabako ekoizleak gehigarriak jendaurrera ateratzearen aurka egonagatik –jabetza intelektuala direla diote-, Osasun Ministerioak 2004ko urtarrilean agindu zien berari adierazteko zein gehigarri erabiltzen dituzten eta, gainera, jendaurrera ateratzeko. Altadisek (Fortuna, Ducados, Nobel, Gauloises..., 1.938 milioi euro salmentetan 2007ko sei hilekoan) erabiltzen dituen 289 gehigarrien informazioa igorri du, baita beren marketan aurkitzen diren proportzio handiena ere.

Erretzailea erakartzeko ingenieritza kimikoko tresna oso landua dugu tabakoa. Horren froga da Philip Morrisek hirurogeita hamarretan gehigarriak erabiltzen hasi eta Marlbororen salmentak izugarri igo zirela. "Lehiakideak, batez ere British American Tobacco, formula bila erotu egin ziren eta agudo sartu zituzten antzeko gehigarriak", dio Rabinoff-ek. Espainian, erretzen dutenek zer erretzen duten inork ez daki Altadisek Tres Cantosen (Madril) zuen laborategiko teknikariek adina. Berriki laborategia itxi eta Frantziara eraman dute<sup>2</sup>.

---

<sup>2</sup> Mendez R. El Pais egunkaria, 2007/10/21ekoa. Madril 2007